

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### Osoko bilkuretako akten euskarria aldatzeari buruzko erabakia

Udalbatzak, 2019ko urriaren 15ean balio osoz eraturako bilkura arruntean, erabaki hau hartu zuen osoko bilkuretako akten euskarria aldatzeari dagokionez:

– Lehenengoa: Aldatzea udaleko osoko bilkuretako akten euskarria, akta horiek teknologia berrietara egokitu daitezen, jarraian adierazten den eran:

– Udalbatzak egiten duen bilkura bakoitzeko akta bat jasoko da idatziz, honako hau bilduko duena: bilkurara joandako zinegotzien izen-abizenak, bai eta bertaratu ez diren zinegotzienak ere; bilkuraren eguna eta hasiera eta amaiera orduak; aztertutako gaien enuntziatua; bozketen emaitzak eta, hala badagokio, onartutako irizpen edo erabakiak.

– Akta hori bilkuraren bideo eta audio grabazioarekin osatuko da. Grabazioa hasieratik amaierara artekoa izango da eta zinegotziek esandakoak bideo-aktatzat hartuko den euskarri bideografikoan jasoko dira oso-osorik, grabazioaren ordua, minutua eta segundoa zehaztuta.

– Geroago, grabatutako irudiak eta audioa editatu egingo dira, errazago ikus daitezen edo bertaratutakoek esandakoaren eta hartutako erabakien jarraipena egin ahal izateko. Hauek jasoko dira: gai zerrenda, bozketen emaitzak eta hartutako erabakiak.

– Lan horretatik ateratzen den grabazioa Udaleko web orrian jarri beharko da.

Une horretatik aurrera, bideo-aktaren eduki osoa eskuratu ahal izango dute hala nahi duten zinegotziek, bai eta herritarrek ere.

– Akta Udalaren web orrian kargatu aurretik, udal idazkariak eta alkate-lehendakariak dokumentu grafikoa sinatuko dute ziurtagiri elektronikoa bidez.

– Gainera, grabazioen segurtasuna bermatzeko, dokumentu guztiak sinatuko dira sinadura elektronikoz, eta denbora zigilua jarriko zaie.

Hala, ez da beharrezkoa izango grabatutako audioaren transkripzioa egitea, zinegotzi bakoitzak esandakoa bere irudiari erantsita geratuko delako.

– Horrenbestez, Udalbatzaren akta liburua idatziz jasotako aktek eta bideo-aktek osatuko dute, lehenago azaldu den moduan.

– Bideo-akta Udaleko zerbitzarian artxibatuko da segurtasun kopia batekin batera, eta kopia hori udal idazkaritzan egongo da eskura.

– Udalbatzaren bilkuretara joaten diren pertsonen intimitatea behar bezala babesteko, datu pertsonalen tratamendurako baimena –tartean, norbere irudiaren tratamendurako baimena– eskatuko da bilkuraren hasieran, eta bilkurara bertaratu den jendea ohartaraziko da mezu honen bidez: “bilkura hau jendaurrekoa da, eta irudiak grabatu eta zabaldu egingo dira herritar guztiek hemen aztertutako gaien berri izan dezaten. Ikusle moduan bertaratu diren pertsonak libreki bertaratu dira; beraz, ulertuko da baimena ematen dutela hemen ematen diren iritzi eta irudiak grabatzeko eta zabaltzeko.”

Adin txikikoen eskubideak babeste aldera, pertsona horiek ezingo dira grabatu.

– Bigarrena. Erabaki hau jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, bidezko jotzen diren alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko. Alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada,

erabakia onetsitzat joko da automatikoki, eta ez da beharko gaiari buruzko berariazko beste adierazpenik.

– Hirugarrena. Indargabetuta gelditzen dira erabaki honetan ezarritakoaren kontrako udal arau, erabaki edo xedapen guztiak.

– Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Jendaurrean jartzen da, interesdunek aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera; eta jakinarazten da ezen, jendaurreko aldia igaro eta erreklamazioak aurkezten ez bada, erabakia onetsitzat joko dela automatikoki, eta ez dela beharko gaiari buruzko berariazko beste adierazpenik.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke organo honen aurrean, hilabeteko epean egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak —abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoaren hamalaugarren xedapen gehigarriak aldatu zuen—, 8. eta 10. artikuluetan jasotako eskumen banaketa betez; hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 30., 112. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi edo isilbidez ezetsi arte.

Hala ere, beste edozein akzio edo errekurtso ere aurkeztu ahal izango duzue, egoki irizten badiozue, zeuen eskubideak aldezte aldera.

Arespalditza, 2019ko azaroaren 21a

*Alkatea*

**GENTZA ALAMILLO UDAETA**